

Neguan, mozorro-jantzian





PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranao
 Guillermo Torres



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

leopoiñdegi zerbitzua daukagu.
 Delitu ardua hartzen da.



MEKANOSA
 Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

EXPRESS ESKAINTZAK!

AEG L6FBI947P ARROPA GARBIGAILUA



599 €

- 9 kg
- 1400 b/min
- Inverter sistema eragilea
- Prosense Teknologia
- Lurrun-programa
- Hasiera gerorotua

MILARBIRE
 Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
 Dendaiko prezioak. Produktuak agortu arte.

INAUTERIEKOKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali inauterietako argazkiak eta irabazi zozketa bidez **KORRIKAKO** materiala

Argazkiak bidaltzeko: 📞 688 655 658 / barren@elgoibarkoizarra.eus
 (gehienez bi argazki) Azken eguna: otsailak 14



barren

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kherxeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Izaro Etxegibel Soraluze Euskara teknikaria

Otsaila



**"Ohiturak aldatu ditu.
Aldarazi dizkiote"**

Hara eta hona dabil itsasertzean hankak uretan sartuta. Maite du neguko eguzkiak hezurak berotzen dizkioneko une hori, zer goxoagorik. Bakea ematen dio itsasoak, lasaitasuna. Malekoian ibiltzen zen bueltaka oraintsu arte, edo itsasargiraino egiten zuen egunero osteratxoa, labarretatik; ahal duen guztietan ortozik ibiltzea erabaki du orain, ordea. Ohiturak aldatu ditu. Aldarazi dizkiote. Gogoan du udaberri aldera izaten zela gazteago zenean harea zapaltzen hasteko eta ura ukitzeko garaia, Aste Santuaren etorrerarekin batera askotan. Begira geratu da, eta, surf egiten ikasten ari den emakume talde bat ikusi du uretan, dozena erdi kontatu ditu, baita beste horrenbeste norbanako bainua hartzen ere. Ez dira betikoak. Oraindik eskolara joaten ez diren haur txikiak dabilta hondarretan jolasean, bikote gazteak ere bai, lurraren epeletan etzanda.

Eman du ordubete bueltaka, aspertu da, hankak garbitu ditu txorrorean eta hondartzako tabernako terrazan eseri da, libre aurkitu duen mahai bakarrean. Pentsatu du lehen ez zela herrikoa ez zen jenderik etortzen urte sasoi honetan, ez behintzat astegun buruzuri batean. Taberna zabalik egoten ote zen ere ez daki ziur, jokia egingo luke ezetz. Kafea eskatu dio zerbitzariari, izotzarekin. Eguzkiak ez dio ondo ikusten uzten, baina mahai gainean dagoen egunkarian irakurri du aurten temperaturek gaintu egingo dutela Lurraren 1,5 graduko berotzearen langa. Inoiz neurtu den urterik beroena izan dela iazkoa - Copernicus atmosfera behatzeko Europako Batasunaren agentziak, Munduko Meteorologia Erakundeak eta NASAk baieztatu dutenez -. Are gehiago, marka hori gaintzeko arriskua berehalakoa dela, 2024an egin dezakeela, zenbait iragarpenek aurreratu dutenez.

Bi pertsona daude ondoko mahaietan: San Blas opila kafesnetan bustitzen bata, kafe hutsaren kiharari putz egiten bestea. Otsaila da.

*BARRE*Nek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Lerro hauen bidez, In Leike kultur elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu otsailaren 3an Mendaron santa eskean aritu ziren lagunei, aurten, bildutako dirua Eusebio Mugertza Txirristaka bertso-jartzailearen kultur-programara bideratzea erabaki dutelako. Eskerrik asko, era berean, mendarorrei, eskekoegi egindako harreragatik eta erakutsitako eskuzabaltasunagatik. Estimatzekoa da usadioari eusteko eta herrigintza sustatzeko batzuek eta besteek egiten duten ahalegina, eta estimatzekoa, baserrietan kantu-errondan dabiltzanei urtero egiten dieten -egiten diguten- ongietorria eta Aizpe elkarteko bazkide talde batek egun hortako bazkaria gertatzeko borondatez egiten duen lana. Ez izan zalantzarik ondo erabilia izango dela eman diguzuen dirua. Luze gabe izango duzue prestatzen ari garen kultur-programaren berri eta ziur eskaintza horretan izango dela zuen gustuku ekintzarik ere. Mila esker, eta datorren urtera arte!

In Leike kultur elkartea



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112




688 655 658



Arregitorre auzoan txakurrei min egin nahian dabilta:

"Txakurrentzako tranpak jarri ditu norbaitek Arregitorreko pasealekuan, eta ez da lehenengo aldia. Txistorra zati baten barruan orratzak sartu ditu norbaitek, txakurrei min emateko. Ez dago eskubiderik".



Bost urte beteko dira aurten Kalegoen plazako eraikina jausi zenetik:

"Laster beteko dira bost urte Kalegoen plazako eraikina erori zenetik, eta aldamioan *Laister* jartzen du. Adar jotzea dirudi".



Santa Klaran kendu eta Urazandin jarri dute orain trango gogorra:

"Joan zen asteko zenbakian irakurri genuen Santa Klaran jarri zuten trango gogorraren harira herritar batek jarritako kexa, eta poztu egin gara aste honetan trango hori aldatu dutelako. Orain jarri dutena egokiagoa da, eta ez da horren bortitza autoentzako. Baina kasualitatea, martitzenerako Kalamua kalean jarri zuten abiadura murrizteko trango gogor horietako bat. Ulertzen dugu Herri Eskola bertan dagoela eta autoek abiadura murrizteko neurriak hartu behar direla, baina horrelako trango gogorrek gehiegizkoak dira, autoak hondatzen direlako".



Santa Ana ermita ez dago uste zena bezain hondatua, Ondare Saileko arkitektoaren arabera

Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistikoa Saileko arkitektoarekin bildu da berriki Enetz Ezenarro Mendaroko alkatea Santa Ana basiliza birgaitzeko proiektuaren inguruan hitz egiteko, eta ermita ikuskatzen egon ostean, arkitektoak ondorioztatu du ermita ez dagoela hasieran uste zen bezain kaltetua. Teilatua konpondu, egoera txarrean dauden egurrak aldatu eta beste lan osagarriren bat egitearekin nahikoa izango dela jakinarazi dio arkitektoak alkateari, eta orain, obra hori egiteko, Babestutako Ondarea Birgaitzeko diru laguntzetara aurkeztuko du proiektua Mendaroko Udalak. Udal gobernuaeren asmoa, Santa Ana Basilizan egin beharreko lanak "ahal bezain laster" gauzatzea da, eta zehaztu dute beren eskuetan dagoen guztia egingo dutela hori lortzeko.



Santa Ana ermita birgaitzeko asmoz batzar batera deitu zituen Udalak herritarrak azaroaren 15ean eta udaletxeko pleno aretoa bete egin zen, gaiak herrian ikusmina sortu duen adierazgarri. 1986az geroztik Donostiako Gotzaindegiarena da ermita, eta ezer egiten hasteko haren baimena behar du Udalak.

Olatz Bizkarguenagak beteko du Jabier Muñozek lagatako lekua Mendaroko Udalean

Olatz Bizkarguenaga (EHBildu) zinegotzi izendatu zuten udalbatzaren urtarrileko ohiko osoko bilkuran. Jabier Muñoz, EH Bilduren zerrendetan laugarren aurkeztu zen ordezkaria, ordezkatu du karguan Bizkarguenagak. Joan zen legealdian zinegotzi izan zen, eta batik bat Lurraldetasun batzordean aritu da orain arte, etxebizitzari, ingurumenari edota ekonomia garapenari dagozkien gaietan. Zarauzko udaletxean Hirigintza Sailean aritu zen lanean duela urte batzuk, eta gaur egun, Azpeitiko udaletxean egiten du lan. Bizkarguenagak esan du EH Bildu alkatetzan egoteak sortu duen ilusioagatik onartu duela Udalera itzultzea.



Osoko bilkuretako akta osoak argitaratuko dituzte aurrerantzean

Zinegotzi berriaren izendapena onartzeaz gain, ohiko osoko bilkuren data aldatzea ere erabaki zuten udalbatzaren azkeneko bileran. Orain arte, hilabeteko azken ostegunetan izaten ziren bilkurak, baina aurrerantzean, hilabeteko

azken martitzenetan izango dira. Era berean, bilkuren aktak osorik argitaratzea ere erabaki dute. "Orain arte, akten laburpenak baino ez ziren argitaratzen. Jendearen eskaria bazen aktak osorik argitaratzea, eta horregatik egin dugu aldaketa. Aktak interesgarriak dira, hartutako erabakiak ikusteko ez ezik, alderdiek izan dituzten iritzi eta eztabaidak ere jasotzen dituztelako; gardentasun ariketa bat da, azken finean, aktak argitaratzea", aipatu du alkatea.

Gaikako bilketa-tasaren beheranzko joerari buelta emateko neurriak iragarri ditu Mankomunitateak

Debabarreneko Mankomunitateak jakinarazi duenez, 2023an ere, jaitsi egin zen hondakin bilketaren tasa eskualdean. “Jaitsiera leuna” izan arren, 2020tik urtero jaisten segitzen du gaika batzen den hondakin kopuruak eta tendentzia horri buelta eman nahi dio mankomunitateak. Horretarako, hainbat neurri hartuko ditu datozen hilabeteotan. Besteak beste iragarri dute aurrera segitzen duela edukiontzi marroiak ixteko prozesuak. Barikuan eman zituzten datuok Debabarreneko Mankomunitateko Igor Aldalur Ingurumen teknikariak eta Jokin Alberdi Zerbitzu teknikariak, 2023ko gaikako bilketaren datuen balantzea eta 2024rako erronka nagusiak aurkezteko prentsaurrekoan.

2023an jaitsi egin zen gaikako bilketa-tasa, %54,68tik %53,89ra (%0,79) eta 2020tik ematen ari da beheranzko tendentzia hori, nahiz eta “jaitsiera leuna” izan. Mankomunitateak aurkeztutako txostenaren arabera, sortutako hondakin kopurua 30.700 tonatan mantendu den arren (421 kg. biztanleko), 200 tona gutxiago jaso dira 2022arekin alderatuta: beira jaitsi da nabarmen (130 tona gutxiago), baita plastiko gogorra, txatarra, gurpilak eta aparailu elektrikoak ere. Bestalde, igo egin diren bilketen artean daude

hondakin organikoak (+100 tona), kafe kapsulak (ia bikoitza, +7.000 kg.), edukiontzi espezifikoak jarri ondoren) eta hondakin arriskutsuak (+%15).

Eskualdeko herri bakoitza aztertuta, berriz, gaikako bilketa-tasa baxuena Ermuak izan du (%45,56) Soralezarekin batera (%49,13). Mallabiak, aldiz, altuena izan du (%66,49); atzetik, Mutriku (%62,12). Hala ere, 2022ko txostenarekin alderatuta jaitsi egin da bi herrietan: %1,48 Ermuan, %2,04 Mallabian (iaz %68,53 izan zuen, inoizko tasarik altuena Debabarrenean). Datuak eskuartean, 2024rako erronka nagusiak aurkeztu zituzten mankomunitateko teknikariek, eta neurrien artean gogora ekarri zuten edukiontzi marroiak itxi egingo dituztela. Bestetik, iragarri zuten hondakin frakzio berriak gaika biltzen hasiko direla, batik bat, ostalaritzarekin eta komertzioekin lotutakoak. Adibidez, arrandegietako sandatx hondakinendako hozkailua jarriko dute Eibarko garbigunean eta komertzioei eta ostalaritzari zuzendutako bilketa zerbitzuaren eraginkortasuna handitu nahi dute, haien ordutegietara hobeto egokituta. Era berean, film industrialak batzen segituko dute Eibarko garbigunean eta industria-guneetan, berriz, sortzearen araberrako ordainketa sistema aplikatuko dute.

Otsailaren 14an zozkatuko dituzte Urruzunoko udal baratzeak

Iñigez Karkizaon 30 baratze publiko sortu ditu Udalak, 30na metro koadrokoak, eta horietatik 28 herritarrei lagako dizkiete. Guztira 97 eskaera jaso dituzte, baina sei baztertu egin dituzte baldintzak ez betetzeagatik. Zozketaz banatuko dituzte baratzeak, eta zozketa hori otsailaren 14an egingo dute, jende aurrean, udaletxeko osoko bilkura artetuan, 11:00etan. Baratzeak erabiltzeko lizentziak urtebeteko iraupena izango du, eta urtero berritu ahal izango dira, gehienez hiru urterako. Aurreikusitako baimena lortzen dutenek apirilaren 1etik aurrera erabili ahal izango dituztela.



Zugarramurdira irteera antolatu du Elgoibarko Izarrak hilaren 24rako



Zugarramurdira egun-pasa antolatu du Elgoibarko Izarrak Udalarekin elkarlanean LH5eko eta LH6ko umeentzat, otsailaren 24rako, eta izena emateko epea zabalik dago. 09:30ean irtengo dira Elgoibartik eta autobusez egingo dute bidaia. 18:00retarako bueltan izango dira Elgoibarren. Zugarramurdira, hainbat jolas egingo dituzte herria ezagutzeko eta hango herritarrekin ere izango dute hartu-eman. Era berean, Sorginen leizea kobazuloa bisitatzeko aukera ere izango dute.

Odola emateko aukera izango da gaur Elgoibarren

Gaur, barikua, hilak 9, odol ateratzeak egingo dituzte Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian. 16:30ean hasiko dira lanean eta 20:00ak aldera arte egongo dira odola ateratzen. Odola eman nahi duenak ordua hartu behar du ondorengo telefono zenbakira whatsapp idatzita: 623 328 408.

Inauterietako zapatuan doako taxi zerbitzua eskainiko du Elgoibarko Udalak

Bihar, hilak 10, doako taxi zerbitzua jarriko du Elgoibarko Udalak gauerditik goizeko seirak bitartean. Udallerri barruko bidaiak bakarrik egingo ditu taxiak eta Txarridunako biribilgunean hartu beharko da. Ezingo da aurrez ordurik lotu, eta taxia hartzeko ilara egin beharko da. Ilara egiten dutenek hurrenkeran hartu ahal izango dute taxia.

119.800 euroko laguntza espero du Mendaroko Udalak Europatik



Mendaroko Udalak aurreikusi du 119.800 euroko dirulaguntza jasoko duela Eusko Jaurlaritzaren bidez landa-garapenerako Europako laguntzen LEADER programatik. Dirulaguntza honen bidez, Intzarbakutzako aldapako irisgarritasuna hobetzeko lanak finantzatu ditu. Intzarbakutzako aldapako obraren kostua 307.127,85 eurokoa izan zen, BEZ barne. Europako laguntzen deialdiaren helburu nagusia landa-udallerrien ekonomia sustatzea, garatzea eta dibertsifikatzea da.

Dolmenen ibilbidea bultzatzeko hitzarmena berritu dute



Dolmenen ibilbidea bultzatzeko hitzarmena berritu dute Elgoibar, Bergara eta Soralezeko udalak Debemen eta Debegesarekin. Hiru udalak urtean diru-kopuru bat jartzen dute 2010ean abiatu zuten lankidetzeta-hitzarmenean jasotako helburuak lortzeko sortutako gastuak finantzatzeko, eta aurten, 9.000 euro jarriko ditu Elgoibarko Udalak.

Herriko establezimenduak emakume zientzialarien erakusleiho bihurtu dira



Egur Arte Tailerra



Ane Arte Tailerra

Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da otsailaren 11, eta egun horrekin bat egin du aurten ere Elgoibarko Udalak. Elhuyarrekin elkarlanean, bi ekitaldi jarri ditu martxan: batetik, *Gu herriko steam emakumeak* izenburupean herriko zortzi emakume zientzialariren biografiak jarri dituzte ikusgai Lekuederren, eta hilaren 16ra arte egongo dira ikusgai panel erraldoiak. Bestetik, *O11 erakuslehiok* ekimena jarri dute martxan Egur eta Ane arte tailerrekin elkarlanean. Herriko 24 establezimendutan emakume zientzialarien marrazkiak jarri dituzte. Arte tailer bakoitzak 12 establezimendu apaindu ditu, eta horretarako lanketa berezia egin dute arte eskoletan. Marrazkiak egin eta margotzeaz gain, emakume zientzialari bakoitzari buruzko informazioa ere landu dute ikasleekin, eta zientziaz jarduteko aukera ere izan dute. Bi arte eskoletako arduradunek nabarmendu dute esperientzia oso aberasgarria izan dela eta zientziari buruzko gauza pila bat ikasi dituztela. Umeak ere oso pozik aritu dira marrazten, eta beraien lanak erakusleihoetan ikusteak izugarri poztu dituela esan dute irakasleek. Hauek dira establezimenduetan ikus daitezkeen emakume zientzialariak:

- Ana Zubiaga Elordieta (Forua, Bizkaia, 1959). Biologoa.
- Angela Saini (Londres, Erresuma Batua, 1980). Zientzia-kazetaria.

- Brigitte Baptiste (Bogota, Kolonbia, 1963). Ekologoa
- Uxue Fernandez Lasa (Urretxu, Gipuzkoa, 1984). Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako ikertzailea.
- Ana Teresa Diego (Bahía Blanca, Argentina, 1954-1976). Astronomia-ikaslea eta ekintzaile komunista.
- Mary Anderson (Greene, AEB). Asmatzailea eta ekintzailea.
- Miriam Friedman Menkin (Riga, Letonia, 1901-1992). Genetikaria eta enbriologoa.
- Elena Ponciano Paino (Durango, Bizkaia, 1980). Arte Plastikoetako eta Ehungintza Arteko Diseinuko goi-mailako teknikaria. Soldadura eta Galdaragintzako teknikaria.
- Wangari Maathai (Ihithi, Kenya, 1940-2011). Ingurumenaren aldeko ekintzailea eta politikaria.
- Chieko Asakawa (Osaka, Japonia, 1958). Informatikaria.
- Gro Harlem Brundtland (Bærum, Norvegia, 1939). Medikua eta politikaria.
- Maia Duguine Haristoy (Hazparne, Lapurdi, 1979). Euskal hizkuntzalaria.

Aurten ere gimkana batean parte hartzeko aukera egongo da. Actionbound aplikazioa dendaz denda jaitsi, 12 emakumeen kartelak bilatu eta bertako QRak eskaneatu ostean, emakumeei buruzko galderei erantzun beharko zaie. Hilaren 16ra arte egongo dira ikusgai.



LURRA ESNATZEN

✍️ Ainhoa Andonegi

👥 Asier Orbea / Ainara Argoitia

Ainhoa Andonegi / Larraitz Zialtzeta


Santa Ageda egunaren bueltan kantuan eta eskean aritu dira Elgoibarren eta Mendaron hainbat talde. Aspaldiko ohitura da gurean, zenbait etnografok lurra esnatzearekin lotzen dutena. Mendaroko ikastolako umeak izan ziren joan den barikuan, makil kolpeka, kantura irteten lehenengoak. Zapatuan, berriz, Etxegiña taldekoak ibili ziren Elgoibarko kale eta auzoetan, eta Mendaron hiru taldetan banatuta koplatu zituzten kaleak eta baserri-auzoak. Domekan, berriz, Elgoibarko Izarrako kideak irten ziren, helduak batetik eta familiak bestetik, Atxutxiamaikarekin. Santa Ageda egunez amaitu zen eske-erronda gurean, Elgoibar Ikastolako ikasleen kalejirarekin. Orri hauetan laburpen halako bat egin dugu, baina argazki gehiago eta bideoak ere eskegi ditugu barren.eus webgunean.











Gazteen gaitasun-digitala, herriko elkarteen mesedetan

'Kaixomundua.eus' hezkuntza-proiektua eta merkataritza eta elkarteei digitalizatzen laguntzeko sortutako egitasmoa batu eta Elgoibarrerako proiektu pilotua sortu dute Elgoibarko Udalak, PuntuEus fundazioak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak lankidetzan. Proiektu horren baitan, Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek herriko bederatzik elkarerentzako webguneak sortuko dituzte, eta martxorako bukatuz gero, webguneak 'Kaixomundua.eus' lehiaketara ere aurkeztu ahal izango dituzte ikasleek, hala nahi izanez gero.

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ PuntuEus

Euskararen eta euskal gizartearen garapen digitalari lotuta dago PuntuEus fundazioaren jarduna, eta horretarako sortu zuten 2018-2019 ikasturtean *Kaixomundua.eus* hezkuntza-proiektua ere: webguneak sortzen ikasiz, gaitasun digitalen ezagutza sustatzeko eskola-komunitatean eta eduki digitalak euskaraz sortzera bultzatzeko ikasleak. Ondoren, pandemia garaian, merkataritza eta elkarteei digitalizatzen laguntzeko proiektua jarri zuten martxan PuntuEus-etik, ikusi zutelako merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza establezimendu asko zeudela oraindik digitalizatu gabe, eta urrats hori egiten zutenek, gainera, gehienetan, ez zutela euskaratik egiten. Hala, proiektu pilotuak abiatu zituzten zenbait udalerritan, digitalizazio prozesu horiek PuntuEus-en balioak kontuan hartuta gauza zitezten: zibersegurtasuna zainduta, Interneteko harremanak seguruak izan daitezela ziurtatuta eta bertatik bertarako arreta eskainita. Besteak beste Oiartzunen, Zumaiaren eta Elgoibarren sortu zituzten proiektu pilotuak, eta beste abantaila batzuen artean, urtebetez domeinua

eta zerbitzaria doan eskaini zizkieten webgunea euskaraz sortu edo berri nahi zuten enpresa, saltoki, ostalaritza establezimendu, elkarte eta entitateei. Eta hain justu ere, bi programa horiek uztartuta sortu dute Elgoibarko Udalarekin eta Elgoibarko Izarra Euskaltzeon Topagunearekin elkarlanean abiatu duten proiektu pilotua: *Elgoibartik mundura*. Asmoa zera da: Elgoibarko establezimendu, elkarte eta entitateen beharrak asetzera, herriko eskoletatik.

"Elgoibarko Udaletik esan ziguten ea zergatik ez genituen jartzen *Kaixomundua.eus* proiektuan webguneak sortzen ikasten ari ziren herriko eskoletako ikasleak herriko elkarteentzako webgune errealeak sortzen", azaldu du Josu Waliño PuntuEus Fundazioko zuzendariak. Proba gisa hasi dute proiektua Elgoibarren, baina PuntuEus-en garbi dute eredia egokia dela eta nahi lukete emaitzak ebaluatu ostean proiektua beste herri batzuetara zabaltzea. Interesa agertu duenik bada, gainera. "PuntuEus-ek hitzarmena sinatuta dauka Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko merkataritza elkarteekin digitalizatzen

laguntzeko, eta Arabakoek, esaterako, galdetu dute proiektuaren inguruan. Gasteizen jarri nahi zuten martxan, baina lehenengo baloratu behar dugu Elgoibarkoak zer ematen duen".

Herriko lau ikastetxetako ikasleak ari dira parte hartzen *Elgoibartik mundura* ekimenean, 11 urtetik 16 urtera bitartekoak: Elgoibar Ikastolako DBH3koak, Institutuko DBH4koak, Herri Eskolako seigarren mailako ikasleak eta Mekan Administarrari laguntzaile zikloa egiten ari diren ikasle talde bat, eta bederatzia dira Elgoibarren martxan jarri duten proiektu piloturako onartu dituzten eragileak: Haizea Elgoibarko emakume taldea, C.D. Elgoibar, Inazio Bereziartua musika eskola, Zubi-ondo xake elkarte, Egur arte tailerra, Atxutxiamaika aisialdi elkarte, Mauxitxa txaranga, Elgoibarko jubilatuen biltokia eta Kalamua guraso elkarte. Horietatik musika eskolak bakarrik dauka gaur webgunea, baina aukera eman diote parte hartzeko eta ikasleek hobetu dezaketen ikusteko. "Herriko zenbait merkatarik ere eman zuten izena egitasmo honetarako, baina aukeratu beharra zegoen, eta Udalak irabazi asmorik gabeko elkarteak lehenestea erabaki zuen, webgune bat sortzeko baliabide ekonomiko txikiagoak izango dituztelakoan", zehaztu du Oier Albizuri PuntuEus-eko proiektu arduradunak.

Kaixomundua.eus egitasmoan bezala, hemen ere, ikasle horiek lehiaketara aurkeztu ahal izango dituzte gero sortutako webguneak, hala nahi izanez gero, eta epeetan sartzen baldin badira.

Eskolan sortuko dituzte webguneak ikasleek, irakaslearen laguntza teknikoarekin. PuntuEus-ek, bestetik, behar duten material guztia erraztuko die garapenerako: azpiegitura teknikoa (domeinua, zerbitzaria eta zibersegurtasunerako azpiegitura) eta webguneak hutsetik sortu ahal izateko lagungarri izango zaizkien bideo-tutorialak. Era berean, *Kaixomundua.eus* programan parte hartzen ari diren gainerako eskolek ez bezala, Elgoibarkoek PuntuEus-eko teknikariaren aholkularitza ere badute. "Elgoibarko kasuan, irakasleekin harreman zuzena daukagu, jarraipena egiteko. Aldiz, *Kaixomundua.eus* proiektuan parte hartzen duten beste eskolak erabat autonomoak dira, eta gu ez gara ezertan sartzen haien lanean", zehaztu du Waliñok. Kasu honetan, gainera, webgune erreala sortu behar dute ikasleek ikasturte bukaerarako, elkartearen beharrei erantzunda, eta bukaeran, entrega egin behar diote dagokion elkarteari, haiek jarrai dezaten elikatzen. "Ikasleek beren proiektua dagokien elkarteari transferitu behar diote eta hor ere parte hartzen dugu guk, eskualdatze hori berme guztiarekin egin dadin, webgune horren jabetza elkarteena izango baita gero", gehitu du Albizurik. Salbuespen bakarra Kalamua guraso elkartearen webgunearena izango da. Herri Eskolako LH6ko ikasleek sortuko dituzte Kalamua guraso elkartearen eta eskolaren beraren webguneak eta etorkizunean webgune horiek elikatzea ere ikasleen arduran geldituko da. "Ikasgaien sartuko dute webgunea eguneratu eta elikatzea eta aurrerantzean LH6ko ikasleen ardura izango da".



Itxura berrituta dator **'barren.eus'**

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak 2006ko urriaren 23an sortu zuen 'Elgoibarren.net' atari digitala. Handik zortzi urtera, 2014ko abenduaren 24an, diseinua berritu eta 'Barren.eus' izatera pasatu zen; eta, Interneteko jardunean egin dugu hirugarren aldaketa nagusia egin dugu orain.



✍️ Ainhoa Andonegi

Azken urteotan, aldatu egin da Interneten nabigatzeko modua. Gero eta gehiago [irakurleen %70 inguru], eskuko telefono bidez sartzten dira gure albisteetara, eta horregatik egokitu dugu, hein handi batean, BARREN.EUS webgunea, telefonotik errazago nabigatzeko.

INDARGUNE NAGUSIAK

Sareko edizioa duintasunez eta punta-puntako teknologiaz sortzeko pentsatutako tresna da plataforma digitala, eta ezaugarri nagusienetakoa da erabiltzen dugun toki komunikabideek teknologia, edukiak eta estrategia digitala partekatzen ditugula, eta inbertsio txikiak eginda, erabiltzaile guztiok abantailak eta hobekuntzak lortzen ditugula. Ez da, beraz, produktu itxia. Kazetaritzan

etengabe sortzen dira behar berriak, eta komunikabideen eta erabiltzaileen beharren arabera egokitzen du Tokikomek plataforma. Plataformara batutako agerkari guztiek hiru hanka nagusi izaten dituzte, eta hala izango ditu BARREN.EUS-ek ere: Aktualitateari dagokiona, Komunitatea eta zerbitzuen atala. Horrez gain, berebiziko garrantzia ematen diogu 1992tik hona argitaratu ditugun BARREN aldizkariaren ale guztiak (1316 dagoeneko) sarean edukitzeari. Horiek berriz kontsultatzeko aukeraz gainera, Elgoibarren eta Mendaron azken urteotan jazo denaren berri izateko aukera ematen duen artxibo erraldoia osatzen dihardugu. Bilatzaileari esker, klik batean aurki daitezke 2006tik argitaratu ditugun albisteak, eta ondo bidean, PDF aldizkarietan bilaketak egiteko aukera ere egongo da laster.



BERRIKUNTZAK

Berrikuntzen artean Agenda izango da nabarmenena. Apustu garrantzitsua egin dugu atal honekin, eta aurrerantzean Elgoibarren eta Mendaron antolatzen diren ekitaldi guztiak klik batean ikusteko aukera eskainiko dugu. Asmoa da, bestalde, bailarako agendak bateratzea, modu horretan Debabarreneko ekitaldien berri bistarazo batean emateko herritarrei.


Agendaz gain, merkatu txikiko iragarkiak, zorion-agurrak eta eskelak ere argitaratuko ditugu atari digitalean. Komunitateak ere garrantzia dauka gurean, eta modu errazean ikusteko moduan jarriko ditugu ikusgai komunitateko kideen idatziak. Era berean, albisteak irakurtzeaz gaiz entzuteko aukera ere badago orain



LOGGING

Webguneak logeatzeko aukera ematen du, eta horri esker zorion-agurrak bidaltzeko edota argazkiak deskargatzeko aukera egongo da. Webgune berritua bailarako euskarazko komunikabideekin elkarlanean garatzen dihardugun prozesuaren fruitua da, eta hemendik aurrera, Debabarreneko lau agerkari digitalek Tokikomen plataforma digital bateratuaren bitartez funtzionatuko dugu

[CodeSyntax enpresa eibartarrak garatu du], eta aldi berean, erreminta bera konpartituko dugu beste 27 komunikabiderekin. Ermuko *Drogeteniturri.eus*, Soraluzeko *Plaentxia.eus* eta Debako *Berriketan.eus* dira BARRENekin batera jauzi hau eman dutenak. Bailaran plataforma hau ezartzeko inbertsioa bailarako udal guztien laguntzari esker finantzatu dugu, eta helburua zera da: komunikabideon Interneteko jardunean pauso koalitatiboa ematea.



AITOR LAUZIRIKA

Eskerrik asko, Lauzi

2006. urtea zen. Ordurako hasiak ziren tokiko komunikabideak Internetarako jauzia ematen, eta BARREN ere sarean egotea garrantzitsua zela erabaki genuen. Gauza berria zen, eta ez geunden teknologia berrietan jantzita, eta hori gutxi ez balitz, ekonomia zen beste traba bat. Orduan agertu ziren gure bueltan Aitor Lauzirika eta Maite Rementeria. Elgoibarko Izarran eta BARRENEN bueltan jardundakoak ziren biak, eta bai batak zein besteak sinisten zuten BARREN Interneten jartzea posible zela. Diseinuaz arduratu zen Remen, eta alde teknikoaz, Lauzi. Webgunea prest zegoenean, kazetariak formatzen jardun

zuen Lauzik, eta 2006ko urriaren 23an egin zuen BARRENek salto Internetera. Ozeano zabalean geunden bat-batean, arrain handiekin igerian. Batzuetan, galduta ibiltzen ginen, arazoak izaten genituen, baina bagenuen hondoratzen uzten ez gintuen kapitaina: Lauzi. Zeukan onena eman dio proiektuari, beti alboan izan dugu laguntzeko prest, borondatez, aurpegi onez beti eta trukean ezer eskatu gabe. Orain Tokikom plataforman sartu gara, baina seguru gaude oraindik behin baino gehiagotan jo beharko dugula Lauzirengana, eta badakigu hor egongo dela, sinisten duelako proiektu honetan eta berea sentitzen duelako. Asko zor dio BARRENEN Lauziri, eta gure partetik eskerrik asko esatea baino ez zaigu geratzen. Mila esker, gure sokorro dei guztiei erantzuteagatik.

Gure natura ezagutzeko egitasmoa prestatu dute bigarren urtez Atxutxiamaikak, Baso Biziak eta Morkaikok



Laz batu zituzten indarrak herriko hiru eragilek, herritarrei gure natura ezagutzera emateko asmoz. Atxutxiamaiak, Baso Biziak eta Morkaiko elkarteek hasi zuten bidea Udalaren laguntzaz, eta aurten bigarren edizioa egingo

dute. Hemen inguruko natura, fauna eta flora ezagutzeko hainbat ekitaldi egin zituzten, eta aurten ere bide beretik jarraituko dute. Dagoeneko prestatu dute egitaraua, eta aste honetan aurkeztu dute 2024rako duten egitasmoa.

OTSAILAK 17

Umeentzako zuhaitz landaketa.

MARTXOAK 1

Anfibioak ezagutzeko irteera.

APIRILAK 13

Landa koadernoak.

EKAINAK 1

Tximeletak ezagutzeko irteera, Arantzazura.

IRAILAK 29

Haziak biltzeko irteera.

URRIAK 4

Gaueko zerua ezagutzeko irteera.

URRIAK 19

Irteera mikologikoa.

URRIAK 26

Gure basoak eta paisaiak. Ibilbidea Hernanin.



Atxutxikaraokea eta Bertsio Gaua izango dituzte Elgoibarren mozorro zaleek bihar



Elgoibar Ikastolakoek euskal inauteriak hasiko du gaur mozorroren festa Elgoibarren, baina inauterietako zapatua izango da, ekintza aldetik, egunik beteena. Ludotekan, mozorro bazkaria egingo dute bihar, eta gaztelekuan, Just Dance txapelketa, 17:00etatik 19:00etara. Eguerdian, bestalde, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletak ere aterako dituzte kalera Erbuzekoek eta Elgoibarko dultzaineroak lagun hartuta, kalez kale ibiliko dira, 12:30etik 14:00ak aldera arte.

Arratsalderako, berriz, Atxutxikaraokea antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak. Maalako parkean izango da hori, 17:30etik

19:00ak bitartean. 16 urtez beherakoek parte hartu ahal izango dute Atxutxikaraokean. Adin horretatik gorakoek gauean izango dute beren dantzarako eta kanturako abildadeak erakusteko aukera, Bertsio Gaua antolatu baitute gauerako. 00:00etan hasiko da Bertsio Gaua, eta taldea zein bakarka parte hartu ahal izango da. Abesti bat bertsionatu beharko da, playbacka eginez nahiz zuzenean abestuz. Lau sari banatuko dituzte: taldeko sari nagusia (250 euro), bakarkako saria (170 euro), taldekako bigarren saria (170 euro) eta sari berezia (150 euro). Parte hartu nahi duenak izena eman beharko du Elgoibarko Izarraren webgunean: elgoibarkoizarra.eus.

Inprobisazioa eta esperimentazioa uztartuko ditu Sinuöseren gaurko kontzertuak

Sinuösekoek ez dute aurtien ere hutsik egingo inauterietan. 1997. urtean eman zuten inauterietako estreinako kontzertua Malapen, eta geroztik, urtero-urtero eman dute kontzertua inauterietan, kontzerturako lekuak aldatuta. Aurtengoa 28. ekitaldia izango da eta Kultur Etxeko Sotoan emango dute kontzertua, 23:00etan. Patxi Zabaleta eta Iban Urizar arituko dira, baina kontzertuaz ez dute ezer aurreratu nahi izan, horixe duelako Sinuöseren inauterietako kontzertuak ezaugarri nagusia: sorpresa. Osagaien artean, hala ere, esperimentazioa izango du.



Pailazo emanaldia, playback lehiaketa eta gehiago antolatu dituzte Mendaron inauterietarako



Eguen Zuriren atzetik, Bariku Mehea da gaur, mozorrotzeko eguna Mendaroko eskola-umeentzat. Urtero moduan, jaialdia antolatu dute eskolan (15:15), eta Santa Ana jaiak izango dute mozorrotzeko gaia. Inauterietako egun handia, baina, bihar izango da Mendaron. Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak egun osoko egitaraua antolatu dute biharko, lankidetzan. Hasteko, eguerdian, 12:30ean, kalejiran irtengo dira Bizi Poza txarangakoak. Azpilgoetan bertan hasiko dute kalejira, eta Herriko Enparantzan saioa egin ostean, Mendarozabalen bukatuko dute, 15:00ak aldera. Azkeneko urteotan, indarra hartzen ari den jaiak da inauterietakoa Mendaron, eta zaturako ere, herriko elkarte guztiak hartuta dituzte herriko kuadrillek, bazkaritarako.

Arratsaldeko egitaraua, 17:00etan, hasiko da. *Utzi Pa(r)kean* ekimena iragarria du Udalak ordu horretarako, frontoian. Mozorro, perkusio eta eskulan tailerra dela aurreratu dute eta nahi duen orok parte hartu ahal izango duela. 18:00ak aldera arte luzatuko da hori, ordu horretan txokolate beroa banatzeari ekingo diotelako Arno guraso elkarteok, urteroko usadioan. Ondoren, 19:00etarako, playback lehiaketa antolatu dute.

Iaz, hamasei talde aurkeztu ziren playbackera, eta aurten ere zabalik dago izena emateko epea. Izan ere, Arno guraso elkarteok parte hartzeko interesa dutenei izena emateko eskatu diete, kantuak-eta lotuta izan ahal izateko biharko. Hala, playbackean parte hartu nahi dutenek mezu elektronikoa bidali behar dute ekintzakarno@gmail.com helbidera. Mezuan, zein abesti aukeratu duten zehaztu beharko dute, bai eta parte-hartzaileen adina ere. Taldean arituko badira, zenbat izango diren ere zehaztu behar dute.

Pailazoen emanaldia, martitzenean

Martitzenerako, hilaren 13rako, pailazo ikuskizuna lotu du Mendaroko Udalak. Potx eta Lotx pailazo ofiatiarrak etorriko dira egun horretan, *Aireportuan* ikuskizunarekin. Emanaldia frontoian izango da, 17:00etan hasita.

Hona hemen *Aireportuan* ikuskizunaren sinopsia: Potx eta Lotx pailazoen ametsa hegazkinez bidaiatzea da, eta amets hori betetzear direla, megafoniatik esango diete beraien hegaldia atzeratu egin dela. Planak aldatu beharko dituzte pailazok azken momentuan, eta hainbat abentura biziko dituzte.



Kilimon bailara ezagutzeko irteera-gidatua eta makrame ikastaroa antolatu dituzte Jubilatuen Biltokioek

Beste bi ekintzaren berri eman dute Elgoibarko Jubilatuen Biltokitik. Batetik, oinarrizko makrame ikastaroa antolatu dute. Astelehenetan izango dira eskolak, biltokian bertan, eta hiru orduz izango dira aukeran, 15:30etik 19:30era bitartean. Makrame ikastarorako izena emateko ordutegia ere zehaztu dute: astelehen eta barikuan, 11:00etatik 12:00etara bitartean, Jubilatuen Biltokian, edo eta telefonoz, 688 742 013 zenbakira deituta. Mandira Estudioko Marian Idiaquezek emango du ikastaroa.

Bestetik, Mendarora irteera ere antolatu dute, Kilimon bailaran urak egiten duen bidea azaltzeko. Berezia da Kilimon bailara geologikoki eta hidrolgikoki aztertuta, eta hango sekretuak ezagutzeko gidaria ere lotu dute: Inma Mugertza hidrogeologoa. Otsailaren 17an egingo dute



irteera hori, eta Elgoibartik trenaz egingo dute Mendarorako bidea. 09:15etako tren hartuko dute, eta 14:00etarako itzuliko dira Elgoibarrera. Antolatzaileek hamaiketako eramateko eskatu dute.



'Urteko liburua' izendatu dute Zuhaitz Gurrutxagarena Panenka sarietan

Futbolaren kulturari eskainitako *Panenka* aldizkariak antolatzen ditu Panenka sariak eta aurten Zuhaitz Gurrutxagak eta Ander Izagirrek lau eskutara idatzitako *Subcampeón* liburua aukeratu dute *Urteko liburua*. 19 urterekin Realarekin Lehen Mailan jokatzeko lortu zuen Gurrutxagak, eta ametsa bete zuen, baina futbolari profesionala izateak presio batzuk ere sortu zizkion, jasangaitzak egin zitzaizkionak, eta horrek antsietatea eta Nahasmen Obsesibo Konpulsiboa eragin zizkion. Horiek denak kontaktzen ditu liburuan.

Sasikopotzu ospatuko dute Mendaroko LH6ko ikasleek, domekan

Ohitura zaharren transmisioa eten ez dadin, leku askotan erdi galduan den Sasikopotzu usadioa berreskuratzea erabaki zuen iaz Arno Guraso Elkarteak, eta LH6ko ikasleekin ospatu zuten. Eta aurten ere ospatuko dute. Euskal Herriko usadio zaharra da, hainbat tokitan Garizuma aurretik ospatzen zen, inauteriak aurreko domekan. Egun horretan jendea mendira joaten zen, sua egin, makilatxo batez buruntzia egin, eta gero txerriak erretzen zituzten. Mendaron domekan ospatuko dute. Eguraldia lagun bada, 11:00etan elkartuko dira estazioan, Olabazatik gora Santa Kurutzera igotzeko mokadua egitera. 14:30ak aldera itzuliko dira.





Alejo Rolo Andres

2024ko otsailaren 7an hil zen, 54 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Jesus Mari Etxaniz Ansola

"Sukusu"

2024ko otsailaren 2an hil zen, 76 urte zituela.
Haren oroimenez hileta meza izango da, barikuan,
otsailaren 9an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretanoi, alde zurretik eskerrak.




V. URTEURRENA

Arantza Berasaluze San Martin

2019ko otsailaren 8an hil zen, 59 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***

Senideak eta lagunak



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Andde Elizburu Italian lehiatu da iraupen eskiko Euskal selekzioarekin

Nazioarteko iraupen eskiko lasterketak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du Andde Elizburu gazteak. Ipar Irrintzi eski taldeko kidea iraupen eskiko Euskadiko selekzioarekin lehiatu da oraingoan, Italian jokatu dituzten hainbat lasterketetan. Skiri Trophy lasterketa izan zen horietako bat, Tesero eski estazio inguruan jokatzeko duten nazioarteko lasterketa. Urtarrilaren 21ean izan zen. 16 urtez azpiko mundu osoko iraupen eskiztailerak hartzen dute parte proban, Italia bertakoak, Alemaniakoak, Suitzakoak, Esloveniakoak, eta baita Euskal Herriko eskiztailerak ere. 191 eskiztailerak lehiatu ziren eta Thomas Gaole izan zen azkarrena. Eskiztailerak elgoibartarra 71. postuan sailkatu zen, irabazlearengandik bi minutura. Proba horren ostean, astebeteko egonaldia egin zuen Elizburuk Italian, Euskadiko selekzioarekin entrenamendu saioak eginez, urtarrilaren 27an jokatu zuten Marcialonga Young txapelketa prestatzeko bereziki. Distantzia luzeko iraupen eskiko lasterketen artean klasiko bat den probaren gazteentzako bertsio laburragoan lehiatu zen, Val di Fiemmen, Dolomitetan. 50 partaide italiar izan zituen lasterketak, eta Andde Elizburu izan zen kanpotar bakarra. 21. postuan sailkatu zen.



Esperientzia "ederra" izan da Andderentzako, alde batetik Euskadiko selekzioarekin lehen deialdia izan duelako eta bestetik nazioarteko lehen esperientzia izan duelako.

Espainiako sprint txapelketa

Italiatik bueltan, eta ia atsedean hartzeko astirik gabe, joan den asteburuan Baqueira Bereten (Lleida, Herralde Katalanak) jokatu zuten Espainiako sprint txapelketetan lehiatu zen Elizburu. Finalerako sailkatu zen arren, podiumera igotzeko atarian gelditu zen, laugarren sailkatuta. Igandean, berriz, distantzia luzeko Marxa Bereten parte hartu zuen, 10 kilometroko distantzian. 166 eskiztaileren artean 20. postua lortu zuen elgoibartarrak.

Elgoibarrek antolatuko du Debarroko Pilota Txapelketa

Apirilean hasiko dute Debarroko Pilota Txapelketa beteteranoaren 75. ekitaldia, eta ekainaren 16an jokatu dituzte finalak Kalegoen plazako frontoi zaharrean. Txapelketan parte hartzen duten pilota taldeetako batek antolatzen du txapelketa urtero, eta aurtengoa Lagunak Pilota Eskolak antolatuko du Elgoibarko Udalaren, Udal Kirol Patronatuaren eta Baltasar elkartearen laguntzarekin. Era honetan, Baltasar Pelotazale Elkartearekin zuen harremana berreskuratuko du Lagunak Pilota Eskolak, eskolatik zehaztu dutenez. Binaka jokatzeko txapelketa hiru kategoriako pilotarietako: kadete, jubenil eta senior mailakoek. Elgoibarrek bi bikote aurkeztuko ditu lehiara,



kadeteen eta nagusien mailan. Debarroko hamar pilota taldek hartuko dute parte aurtengo lehiatan: Lagunak Pilota Eskola (Elgoibar), Aretxabalre K.E. (Aretxabaleta), Olalde (Antzuola), Arrasate Pilota Taldea (Arrasate), Aloña Mendi (Oñati), Euskal Jolas (Deba), Bergara K.E. (Bergara), Eibar Klub Deportiboa (Eibar), Soraluzeko P.E. (Soraluze) eta Eskoriatza K.E. (Eskoriatza) izango dira.



Sailkapeneko aurreneko postuetan hasi dute bigarren itzulia Malapek eta Alcortak

Denboraldiaren ekuadorrera ailegatu dira Sanlo eskubaloi taldearen senior mailako bi talde nagusiak, Alcorta Forging Group eta Malape, eta orain arte egindakoaren erreposoa eskatu die BARRENEK Lorea Gabilondo eta Zigor Esnaola entrenatzaileei. Euskal Ligan lehiatzen dihardute bi taldeek eta une honetan seigarren dago Alcorta eta laugarren Malape.

✍ Asier Orbea / 📸 Sanlo EKT

Denboraldiaren lehen zatiaz balorazio positiboa egin du Alcortako entrenatzaile Zigor Esnaolak. Mailaz jaitsi ostean, Euskal Ligara egokitzea eta aurkariak ezagutzea izan dute lehen lana, ez baitzuten erreferentziarik. Kategoriaz jaitsi den talde batek egin dezakeen akatsik larriena aurkariak gutxiestea eta gauzak egintzat ematea dela dio Esnaolak, eta horixe transmititu die jokalariei hasieratik. "Gure usteak bete dira eta sailkapena begiratu besterik ez dago liga oso lehiakorra dela ikusteko, aldeak oso txikiak baitira. Gureari erreparatuta, bigarren taldeko jokalariekin bete dugu taldea laga zutenek utzitako lekua, eta egokitzapen lan bat eskatzen du, denok elkar ezagutzeko. Alde horretatik pozik nago, talde lehiakor bat egin baitugu guztion artean", azaldu du Esnaolak. Akatsetatik ikasten dakien taldea direla gaineratu du eta euren jokoa egiten dutenean eroso jokatzeko dutela eta igarri egiten dela emaitzetan ere. Igoera fasea jokatzeko sailkatzea da taldearen helburua, eta ligako lehen bi sailkatuek lortuko dute

hori. Salbuespen batekin: Zarautzek ezingo du igoera fasea jokatu, goiko kategorian diharduen taldearen filiala baita. Une honetan bigarren postuan daude zarautzarrak. "Seigarren postuan gaude gu 15 jardunaldi jokotuta [26 dira guztira], eta lau puntu gehiago ditu Zarautzek. Zumaia dago lidertzan, oso sendo, 26 punturekin. Ez ditut hortik behera egiten ikusten, eta hortaz, bigarren postuagatik borrokatu beharko dugu gainerakook. Usurbil, Urdaneta eta gu gaude borroka horretan. Gure jokoa egiten jarraitzen badugu, gudan sinistuta, ziur naiz azkenera arte borrokatuko dugula, jokalariek behin baino gehiagotan erakutsi dutelako gai direla, eta egunerokoan ere, entrenamenduetan, hobekuntzak ikusten ditudalako. Sailkapenez harago, baina, talde moduan hastea da gure beste helburu nagusia. Jokatzeko modua finkatu eta erregularrak izatea". Taldekide guztien konpromisoa nabarmendu du entrenatzaileak eta Sanlok dituen baloreetan eredu eta isla izan behar duela lehen taldeak; alegia, ahalegina, konpromisoa, errespetua eta



talde lanaren ikur izan behar dutela behetik datozeneztat. "Ikusten ditut balore eta balio horiek taldean islatuta, bai jokalariai eta baita taldea gidatzen laguntzen didaten pertsonak ere ehuneko ehunean daude konprometituta. Horri ematen diot nik baliorik handiena, besteak beste, izugarri errazten duelako nire eginbeharra eta eskertzekoa da, benetan".

MALAPE, LAUGARREN

Malape Elgoibarreko entrenatzaile Lorea Gabilondo ere pozik dago taldeak ligako lehen zatian eman duen mailarekin. Lehen itzulirako helburua oinarriak finkatzea eta beste taldeekin lehiatu ostean euren maila zein den jakitea izan dela dio, gizonaek moduan, maila galdu baitzuten aurreko denboraldian, eta estreinakoz ari baitira Euskal Ligan. "Kategoria oso polita izaten ari da, parekotasun handia baitago eta partida guztiak borrokatu behar dira. Taldea primeran egokitu da Euskal Ligara eta gero eta erosoago ari gara". Bigarren itzulirako defentsako lanean jarri nahi du arreta Gabilondok. "Sendotasun handiagoa eduki behar dugu defentsan, partida bat irabaz dezakezulako erdipurdiko defentsa batekin, baina defentsan dago lorpen handien abiapuntua". Ligako lehen bi sailkatuek jokatuko dute Zilarrezko Mailara igotzeko fasea, baina lidertzan dagoen Ametzoi Zarautzek ezin du mailaz igo, dagoeneko badutelako taldea goragoko kategorian. Hortaz, sailkapenean aurretik dituzten Bera Bera eta Berango Urduliz taldeengana ahalik gehien hurbiltzea izango da

**Euskal Ligan ari dira jokatzen
Sanloren bi talde nagusiak.
Biek galdu zuten maila iaz.**

Malape taldearen helburua ligako azken txanpa honetan. "Aurten zaila izango den arren, azkenera arte borrokatzea da gure helburua. Argi daukadana da, daukagun talde honekin, luze gabe jokatuko ditugula igoera faseak, aurten ez bada hurrengo denboraldian".

Talde oso gaztea dela gogora ekarri du Gabilondok, iaz zerotik abiatu baitzuten proiektu berria. Alabaina, senior mailara ondo prestatuta iristen ari direla azpimarratu du. "Kategoriari talderik gazteena daukagu, alde handiarekin, baina gazte ausartak ditugu eta beldur eta konplexurik gabe egiten diete aurre partida guztiei". Taldeak erakusten dituen borrokarako gogoia eta taldekideen konpromisoa goraiatu ditu entrenatzaileak. "Jokalariai egiten duten ahalegin gabe, oso zaila litzateke hau aurrera eramatea. Kanpoan ikasten ari direnak ere, astean bi aldiz entrenatzen dira hemen. Santanderren ikasten ari den gure jokalaria batek Santanderreko Pereda taldearekin entrenatzen da aste barruan eta gurekin barikuetan. Aste lau aldiz entrenatzen dugu, horietako saio bat gimnasioan. Konpromiso maila handia eskatzen du horrek. Aintzat hartzekoa eta eskertzekoa da".

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa dut, erizaina naiz eta esperientzia daukat. **643 505 662**

Jardun erdiz egingo nuke lan, adinekoak zainduz edota etxe eta bulegoetan garbiketa lanak eginez. **627 163 168**

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia eta erreferentzia onak ditut. **623 731 063**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan ere prest. Esperientzia. **624 316 594**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan ere bai. Esperientzia. **642 578 943**

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan ere bai. Titulua eta esperientzia ditut. **642 577 823**

Arratsaldeetan edo asteburuetan lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat. **674 535 912**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka edota gauean. **631 417 922**

Edozein lan egiteko prest nago: txofer, elektrikari... **624 068 334**

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Barruetako margoketa lanak ere egiten ditut. **632 708 954**

Bikote bat gara eta adinekoak zaintzen egingo genuke lan. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. **685 729 790**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago arratsaldeetan. Titulu soziosanitarioa daukat, baita urteetako esperientzia ere. **604 910 708**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Lanotan 7 urteko esperientzia daukat. **643 950 130**

Umeak nahiz adinekoak zainduko nituzke eta etxeetan eta lokaletan garbiketa lanak egiteko ere prest nago. **634 196 236**

Adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan. Titulu soziosanitarioa daukat eta esperientzia ere bai. **632 679 710**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak (etxeetan, ostalaritzan...) egiteko prest nago. Orduka. **632 684 096**

ETXEBIZITZAK


Gazte elgoibartarrak etxea hartuko luke alokairuan epe luzerako. **619 966 696**

BESTELAKOAK

Ortu txiki bat hartuko nuke alokairuan. **605 720 758**

  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Komunitate bateko lehendakaria naiz, eta jakin nahi nuke zer jardura egin ditzakedan nire komunitatean.</p> <p>Lehendakariak komunitateari buruz duen ordezkaritzak legezko izaera du, ez bakarrik legeak ematen dizkiolako ordezkaritza-ahalmenak, baizik eta, gainera, komunitateko organo bat delako. Legezko ordezkaria izateagatik, lehendakariak hori egiazta dezake, hala dela frogatuz, notario-ahalorde batean jaso beharrik gabe. Nahikoa izango da idazkariak emandako ziurtagiria, halakorik izanez gero, edo, figura hori izan ezean, lehendakariak berak emandakoa, ziurtagiria ematen den egunean ziurtagiria egiten duen pertsona presidentea dela adierazita. Kontuan izan behar da lehendakariak komunitatearen ordezkarik gisa jarduten duela eta gaitasun osoa du komunitateari dagozkion legezko ekintzak gauzatzeko, bere eskubide eta interesen defentsan. Horrek ez du esan nahi lehendakaria gai denik bere kabuz eta bere nahierara edozein motatako jarduketak erabakitzeko. Izan ere, Jabeen Batzarrek baino ez du horretarako eskumena, nahiz eta lehendakariak ordezkatzen duen eta bere erabakia gauzatzzen duen.</p> <p>ONDORIOA: Ahalmen horrek Komunitatearen sinadura ematen dio lehendakariari bere eremuko kudeaketa eta administrazio egintzetan. Kontu korronteak ireki ditzake, hornidurak kontrata ditzake, zerbitzuak eman ditzake... lehendakariak egiten duenak komunitateari eragiten dio. Baina lehendakariak egiten dituen jarduketa horiek Jabeen Batzarrek aldeaz aurretik hala erabakitzen badu bakarrik abiarazi ahal izango dira. Bere jardunak legez dagozkion ordezkaritza gainditzen badu, erantzukizun pertsonala izango du gehiegikeria horien aurrean.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.




Zorionak, **Dilan**, martitzenean 8 urte bete zenituelako. Segi orain arte bezain jator. Etxekoen eta lagunen partez, muxu bat.



Zorionak, **Nora!** 4 urte handi! Egun ederra pasatu genuen. Patxo handi bat.



Zorionak, **Bittor**, otsailaren 1ean 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Jakes!** 9 urte potolo! Gustura ospatu genuen. Segi jator!



Zorionak etxeko bi izarrei! 7 urte handi dagoeneko! Jarraitu orain arte bezain alai. Muxu potolo bana, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Lur!** San Blas Egunean ederki ospatu genuen eguna. Segi orain arte bezain jator, gure Blasita.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA

Zer da hortzetako flemoi bat eta nola sendatzen da?

Flemoi batek zorne-poltsa bat sortzen du. Infekzioa garaiz tratatzen ez bada, zabaldu egin daiteke eta min handiagoa eragin.

Flemoiak agertzeko arrazoi nagusiak hauek izan ohi dira: bakterioak, txantxarra, gaixotasun periodontalak, hortzetako traumatismoak, aho hortzetako higie txarra...

Flemoia sendatzeko, komeni da dentistarengana joatea, antibiotikoren bat errezeta diezagun. Sintomak gutxitzean, ikusi beharko da zerk eragin duen flemoia.

Litekeena da gero interbentzioren bat edo endodontziaren bat egin behar izatea, horta salbatzeko. Horretarako hortzaren sustrai hondoraino garbitu beharko da. Infekzio periodontala bada, sustraiaren arraspate bat egin beharko da. Kasurik larrietan, horta atera egin beharko digute, eta ondoren, inplantea jarri. Esan dugun bezala, hortzetako flemoiak bakterioaren batek eragindakoak izaten dira normalean, eta beraz, bakterio horien kontra egin behar da, higie zainduta. Eskuila itzazu hortzak otordu bakoitzaren ondoren eta erabili hortzetako haria. Zaindu elikadura, azukrea lagata eta tabakoa kenduta, eta tarteka, egin oster bat dentistarengana.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

9 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

11 DOMEKA

11:00 Sasikopotzu ospatuko dute Mendaron Arno guraso elkartearen eskutik. Estazioan elkartuko dira eta Santa Kurutzera joango dira mokadua egitera. 14:30ean itzuliko dira.

16 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Almazenean'. Txalo produkzioak antzerki taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

INAUTERIAK MENDARON

Otsailak 10 eta 13



10 ZAPATUA

12:30 Bizi Poza txarangaren kalejira.
17:00 *Utzi pa(r)kean* ekimena. Frontoian.
18:00 Txokolate dastatzea. Arno guraso elkarteak antolatuta, Mendaroko frontoian.
19:00 Playback lehiaketa.
20:30 Kale animazioa.

13 MARTITZENA

17:00 Potx eta Lotx pailazoak: 'Aireportuan'. Frontoian.

INAUTERIAK ELGOIBARREN

Otsailak 9, 10, 11 eta 13



9 BARIKUA

15:00 Elgoibar Ikastolakoek Euskal Inauteria. Ikastolan egingo dute.
23:00 Sinuöseren inauterietako kontzertua. Kultur Etxeko sotoan.

10 ZAPATUA

12:00 Mozorro bazkaria, Elgoibarko Ludotekan.
12:30 Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, Elgoibarko dultzaineroekin.
17:00 Just dance txapelketa, Elgoibarko Gaztelekuan.
17:30 Atxutxikaraokea. 2-12 urte bitartekoentzako, Maalako parkean.
19:00 Mozorroen eta karrozen desfilea, Mauxitxa txarangarekin. Maalako parkean hasita.
00:00 Bertsio gaua. Taldeka edo bakarka hartu daiteke parte. Maalako parkean.

11 DOMEKA

17:00 Inauterietako merienda, Elgoibarko Gaztelekuan.

13 MARTITZENA


17:00 Kiki, Koko eta Moko pailazoak: 'Bizi-bizi zirkua'. Maalako parkean.
17:30 Dantzaldia eta mozorro lehiaketa, Jubilatuen Biltokian.
18:15 Mauxitxa txarangaren kalejira, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parkean hasita.

Zinea
Herriko Antzokian




'Beekeeper: El protector'

9, barikua: 19:00
10, zapatua: 19:00 / 22:15
11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:00



'Robot dreams'

(Ongarri zinekluba)
14, eguaztena: 21:00 (VOS)



'Kina & Yuk'

11, domeka: 16:30

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OTSAILA

9 BARIKUA	Yudego
10 ZAPATUA	■ Oruesagasti / ■ Arriola
11 DOMEKA	■ Oruesagasti
12 ASTELEHENA	Garitaonandia
13 MARTITZENA	■ Ibañez
14 EGUAZTENA	Garitaonandia
15 EGUENA	Arriola
16 BARIKUA	■ Fernandez

2024 urte guztian, gauzez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
--	--	--



Probatu TEMPUR PRO lastaira
eta gozatu atsedeen indartzaile
eta lasaigarriago batez.

Etorri, bisita gaitzazu!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Aste honetako erretratu zaharra Gloria Canalesek ekarri du BARRENEko erredakziora. Hiru emakume ageri dira bertan: **Julia Barrutia, Estefania Uranga eta Juani Barrutia**. Julia eta Juani ahizpak ziren, Barrutia jatetxekoak, eta Estefania Lasturtik etorri zen, jatetxean lan egitera. Oso gazte etorri zen Elgoibarrera lanera, eta bertan bizi izan zen, hil artean. Etxekotzat zuten, familiakoa zen beraiantzat Estefania, eta egun batean txangoan eraman zuten bi ahizpek Estefania, Donostiara. Igeldora ere igo ziren egun hartan, eta han atera zuten argazki hau.



60 URTETIK GORAKO PERTSONEN IRITZIA JASO NAHI DUGU

GAIA: BELAUNALDIARTEKO HARREMANAK.



- ZER EGITEN DUZU ZURE DENBORA LIBREAN?
- ZEIN HARREMAN MOTA DUZU UME ETA NERABEEKIN?
- BEHARRA IKUSTEN AL DUZU BELAUNALDI EZBERDINEN ARTEKO PERTSONAK HARREMANTZEKO?



OTSAILAK 20

09:30-11:30, LAN-SAIOA

11:30-12:30, HAMAIKETAKOA

(EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ)

AITA AGIRRE KULTURGUNEA



ARETO NAGUSIA

943 74 17 46



(DEIAK ETA WHATSAPPA)

G R E M I O E N GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279



AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegio - altzariak - erre-aldaketak

Kurutuz-gain Industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Utazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso Industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriainmar@hotmail.com
@carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agire Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,10€
hilan

12
aldiz urtean

4.885
die ostero

22 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.